


Goi Mailako
Lanbide
Heziketa

Zurgintza,
altzarigintza eta
kortxogintza

Diseinuko eta altzari- hornikuntzako goi mailako teknikaria



Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra



UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA

Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtza
El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

Diseinuko eta altzari-hornikuntzako goi mailako teknikaria

Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jardura profesionalak garatzeko:

Arotzeriako eta altzarigintzako proiektuak

- Arotzeriako eta altzarigintzako produktuak definitu eta garatzea.
- Dokumentazio teknikoa garatzea eta doitzea.
- Arotzeriako eta altzarigintzako prototipogintza kontrolatzea eta zuzentzea.

Instalazioetarako eta altzari-hornikuntzetarako proiektuak

- Etxebizitzetan, saltokietan, erakusketa-espazioetan eta espazio publikoetan arotzeriako eta altzari-hornikuntzako instalazio proiektuak garatzea.
- Arotzeria-instalaziorako eta altzari-hornikuntzarako elementuen hornikuntza eta fabrikazioa ikuskatzea.
- Arotzeriako eta altzarietako instalazioen muntaketa koordinatzea eta ikuskatzea.

Osatu gabeko lanbide kualifikazioa

Altzarigintzako eta arotzeriako industrietako produkzioa antolatzea eta kudeatzea

- Altzariak fabrikatzeko industrian biltegia eta hornikuntzak planifikatzea eta kudeatzea.
- Altzariak fabrikatzeko industrietan produkzioa ikuskatzea eta kontrolatzea.

KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Titulu hau eskuratzen dutenek arotzeriako eta altzarigintzako produkzioaren eta instalazioaren sektorean dihardute, enpresa txiki, ertain eta handietan, beraien nahiz besteen kontura,

honako eginkizun hauetan: diseinu teknikoa, produkzioaren ikuskapena, fabrikazio automatizatua, altzari-hornikuntzako proiektuak garatzea eta instalazioak muntatzea.

Hauek dira jardura eta lanpostu aipagarrienak:

- Altzarien marrazkilaria proiektugilea.
- Arotzeriako eta altzarigintzako produktuak garatzeko teknikaria.
- Arotzeriako eta altzarigintzako proiektugilea.
- Zuraren, altzarien eta beste manufaktura batzuen enpresen kudeatzailea.
- Zuraren eta kortxoaren industrietako kalitate-kontrolero teknikaria.
- Bulego Teknikoko burua.
- Fabrikazioko burua.
- Produkzioko kontrolatzailea.
- Atalburua.
- Taldeko burua.

ZIKLOAREN MODULUAK

- Arotzeriako eta altzarigintzako industrien prozesuak.
- Arotzeriako eta altzarigintzako fabrikazioa.
- Arotzeriako eta altzarigintzako irudikapena.
- Arotzeriako eta altzarigintzako prototipoak.
- Arotzeriako eta altzarigintzako produktuen garapena.
- Ingelesa I.
- Arotzeriako eta altzarigintzako automatizazioa.
- Arotzeriako eta altzarigintzako instalazioak.
- Arotzeriako eta altzarigintzako diseinua.
- Arotzeriako eta altzarigintzako produkzioaren kudeaketa.
- Lanerako prestakuntza eta orientabideak.
- Enpresa eta ekimen sortzailea.
- Diseinuko eta altzari-hornikuntzako proiektua.
- Lantokiko prestakuntza.